

EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA

Sozietatearen izena

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.

IFK

Q9855007B

Izaera

Zuzenbide publikoko ente publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Publikoa.

Aurrekontu-araubidea

Mugatzaila.

Sorrera

Legez laurogeiko hamarkadan sortu bazen ere [Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko azaroaren 15eko 4/1984 LEGEAREN](#) bidez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen jardura aholku-emailea ez zen 1998. urtera arte hasi, honako lege hauek eragindako aldaketen ondoren: [15/1994 Legea, ekainaren 30ekoa](#), eta [9/1997 Legea, ekainaren 27koa](#) aurreko biak indargabetu zituen, alboko legegintza-aldaketen zein agente ekonomiko eta sozialen dinamikaren ondorio zirenak.

[Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 LEGEAK](#) erreforma-prozesua amaitzen du, eta arautzen du, [Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko urriaren 29ko 433/2013 DEKRETUAREKIN](#) batera, batzordearen eginkizunak, osaera eta funtzionamendua arautzen dituen egungo erregimena.

Sail-atxikipena

Ez da aplikatzekoa.

EJSN

8411 Herri Administrazioaren jardura orokorrak.

Funtzioak

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren erakunde aholku-emailea da, eta zenbait interes ekonomiko eta sozialek Euskadiko politika ekonomikoan parte-hartze eraginkorra edukitzea du helburu. Batzordeak honako funtzio hauek izango ditu:

- Politika ekonomiko eta sozialarekin zerikusia duten lege-proiektuei buruzko txostena derrigorrez ematea, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legea salbuetsirik.
- Politika ekonomiko eta sozialarekin zerikusia duten eta, Jaurlaritzaren ustez, garrantzi handikoak diren dekretu-proiektuei buruzko irizpena derrigorrez ematea.
- Jaurlaritzari gai ekonomiko eta sozialei buruzko proposamenak ematea.
- Irizpenak, ebazpenak edo txostenak egitea a) eta b) puntuetan aipatutako gaiei buruz, bere ekimenez edo Eusko Jaurlaritzak edo Eusko Legebiltzarrak eskatuta.

- e) Jaurlaritzak prestatzen duen Autonomia Erkidegoko arlo publikoko jarduera ekonomikoari buruzko plangintzan parte hartzea.
- f) Urtero-urtero memoria bat egitea Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ekonomiko eta sozialaren gaineko gogoetak jasotzeko, eta Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari aurkeztea.

Sailkapena kontabilitate nazionalan

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak.

Osaera

Hauek dira batzordea osatuko dutenak:

- a) Ordezkarri gehien dituzten sindikatu eta sindikatu-konfederazioen izenean zortzi kide.
- b) Enpresa-konfederazioen ordezkarri gisa, zortzi pertsona.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko honako sektore, erakunde, entitate edo elkarte hauetako ordezkarri bana:
 - 1) Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera
 - 2) Aurrezki kutxak eta finantza-erakundeak.
 - 3) Kooperatibak.
 - 4) Lan-sozietate anonimoak.
 - 5) Arrantzako erakundeak.
 - 6) Nekazaritzako erakundeak.
 - 7) Kontsumitzaileen erakundeak.
 - 8) Gizarte-ekintzaren hirugarren sektoreko erakundeak.
- d) Kontseiluaren berezko funtzioekin zerikusia duten gaietan adituak diren zortzi pertsona. Pertsona horiek hitza izango dute, ez, ordea, botoa.

2012ko aurrekontuak

www.euskadi.net (6. liburukia-52. atala)

2012ko Aurrekontuen Likidazioa eta Urteko Kontuak

[2012ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuak eta auditoria-txostena.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	5.166.440 €
Ondare garbia	4.975.537 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	0 €
Benetako aurrekontu-plantilla	10,4

Sozietatearen helbidea

Diego López de Haro Kale Nagusia, 81 7. 48011 - Bilbo (Bizkaia)

Webgunea

www.cesegab.com